

Hantxe bizi giñian
bakean ta jozkiro ;
hantxe dastatu nuen
eztizko abea.

Berton igazi nuen
aldirik samurrena ;
berton erraiten nixun
Laztana !, Neurea !

(Oarra : « Nixun » erabiltzen dut « nizun » erabili bearrean. Nire ustez elelderrez ari garanean, « iketa » edo « itano » alde batera utzirik, era hau erabilli bear genuke. Lagunen batekin begirunez mintzatzen garanean, « nizun », « duzu » eta abar, baiña adiskidetasunez, barrukotasunez mintzatzean, « nixun », « duxu » eta horrela).

Gezur-Lili

Otsalar.

Gaztaroan, beti nintzonan
maite-min egarri,
i ezagutzeak jarri idanan
biotz-loa urduri.

Leyatsu, barruti ortan
sar nintzonan itxutuki,
liluragarritzko lokarritz
lotu idanan uztarri.

Maiteki-maiteki,
nire kai ta kabi,
laztan goxo ugari
biotzaren asegarri ;
beti muxuka, i ta ni...

oldozmen ameslari,
gogalpenari igesi.
Ai ! ai !, egun zoragarri.

Irudiaren ederrak
arima unan estali.
Atsegin irristakorra
amilburuan galtzori...
biotz zauritua
ire oroigarri.
Egun aiek, ondoren,
betiko Juna ekarri.

1956.

Moite-Ixiltasuna

Lastarri

Maite zaitudala adieraztea
ezina derizkiot itzez egitea.
Ezer esan ezin ; a ! ze ixiltasuna...
Nik maite ez zu ?...
Begidatu nazazu...
Begietan nire maitasuna.